



AZTERTZE OHARRA
SUBSIDIARIOTASUNARI BURUZKO BOSGARREN GOI-BILERA
2011ko martxoaren 21a
Bilbo, Euskadi
Espainia

“Subsidiariotasunaren kontrola Lisboatik urtebete igaro ondoren: eskualdeen eta tokien ikuspegiak”

Lisboako Ituna indarrean jarri zenetik urtebete igaro ondoren, Eskualdeen Komiteak (EK) atea ireki dio subsidiariotasunaren kontrolari buruzko eztabaidari, izan ere, erantzukizun berriak eta funtsezkoak esleitu zaizkio eremu horretan komite horri. EKren iritziz, subsidiariotasunaren kontrola politikak erabakitzeke ziklo osoan egin behar da eta, legegintza aurreko eta legegintzako fasea ez ezik, EBren legeria betearaztea ere hartu behar du barnean, fase horiek guztiek elkarri eragiten baitiote. Beraz, aurtengo Subsidiariotasunari buruzko Goi-bileraren ardatza izango da subsidiariotasuna kontrolatzea fase horietan: Europako Batzordeak legegintza aurreko fasean burutu dituen eragin-ebaluazioak eta eskualdeetako eta tokiko agintarien parte hartzea; subsidiariotasunaren kontrola legegintza fasean, orokorrean, eta, bereziki, aurretiaz ohartarazteko mekanismoari dagokionean; eta azkenik, EBren legeria betearaztea eta eskualdeetako eta tokiko erakundeek subsidiariotasun printzipioa ezartzerakoan duten egitekoa.

Prozesu horretan zehar subsidiariotasun printzipioa gainbegiratzeko tresna eraginkorra da Subsidiariotasunaren Jarraipen Sarea (SJS), horretarako plataforma eragingarria dela erakutsi baitu 2007tik aurrera.

Aurten Euskadik hartuko du subsidiariotasunari buruzko goi bilera, izan ere, Euskadi SJSren kide da sare hori eratu zenetik; Euskadiko eskualde gobernuak eta legebiltzarrak ordezkatzan dute sare horretan Euskadi. Eusko Jaurlaritzak SJSren ekintza-planean hartzen du parte eta gizarte berrikuntzaren lan-taldearen buru eta klima aldaketari aurre egiteko lan-taldeko kide da. Halaber, interes handia erakutsi du eta laguntza eman du SJSk burutzen dituen eragin-ebaluazioari buruzko

kontsultak burutzen. Eusko Legebiltzarrak Espainiako Parlamentuak aurretiaz ohartarazteko mekanismoaren esparruan orain arte burutu dituen kontsulta guztiei eman die erantzuna.

Ekitaldiaren behin behineko egitaraua

Inaugurazioa

Goi-bilera honako hauek inauguratuko dute: Mercedes Bresso EKren presidenteak, Ramón Luis Valcárcel EKren lehenengo presidenteordeak, Patxi López Eusko Jaurlaritzaren lehendakariak eta Arantza Quiroga Eusko Legebiltzarreko lehendakariak.

Subsidiarotasunaren kontrola Lisboatik urte bete igaro ondoren: zenbait kasu aztertzea

Jarraian, Europar Batasuna, Europako Parlamentua, EBren Kontseilua eta Eskualdeen Komitearen ordezkariak izango dute hitza. Lisboako Ituna indarrean jarri zenetik Subsidiarotasunari buruz izan diren aldaketa nagusiak aztertzeko agindu zaie. Bestalde, SJSren garapena eta funtzionamendua nabarmenduko da. Horren ondoren, EK-ko zenbait kideek —txostenak aurkeztu dituztenak hain zuzen— eztabaidari ekingo diote subsidiarotasun ikuspuntutik interesgarriak diren zenbait gairi buruz.

Lehenengo saioa (goizean)

Subsidiarotasuna: tokiko eta eskualdeetako agintariak hori ezartzen

Lehenengo saio honen ardatza EBren legeria betearaztea izango da eta SJSren lehen ekintza-planeko bost lan-taldeetako kide nagusiak bilduko ditu. Ekintza-planaren helburua da Sarearen ahalmen guztia erabiltzea, sarea ideia laborategia eta plataforma bikaina izan dadin EBren legedia betearazteko jardunbide egokienak trukatzeko. Kide nagusiek azaldu beharko dituzte zer nolako ikuspuntua duten EBren legeria betarazteaz eta subsidiarotasun printzipioa eskualde eta toki mailan betearazteko eraz, ekintza-planaren emaitzei aipamen berezia eginez.

Erabaki politikoak hartzearekin zerikusia duten gobernantza eremuen arteko harremanak hartu dituzte ardatz lan-taldek: toki-eskualde eremua, nazio eremua eta eremu europarra. Prozesu horren bitartez, erakutsi nahi zen subsidiarotasun printzipioa, herritarrengandik hurbilen dauden gobernantza mailaren eskumenak gordetzeko "defentsa mekanismoa" izateaz gain, kontzeptu positiboa ere badela, nazio eremuak eta eremu europarrak partekatzen dituzten eskumenak eraginkor baliatzeko gida dela eta horregatik sinergia eta irtenbide konstruktiboen aldera jartzen dela.

Bigarren saioa (arratsaldean)

Eskualdeetako parlamentuak eta aurretiaz ohartarazteko mekanismoa

Aurretiaz ohartarazteko mekanismoa delakoaren bitartez subsidiarotasuna aurretiaz gainbegiratzeko eskubidea aitortzen zaie parlamentu nazionalai. Mekanismo hori Lisboako Itunean jasota dago. Mekanismo horrek legegintza eskumenak dituzten eskualdeetako parlamentuak ere partaide izatea aurreikusten du.

EK-k azterlan bat abiarazi zuen 2010eko ekainean eskualdeetako parlamentuek aurretiaz ohartarazteko mekanismoan duten zereginaz. Azterlan horren emaitzak saioan aurkeztu eta eztabaidatuko dira eta mahai-inguruko eztabaida eragingo dute; hor eztabaidatuko baitute eskualdeetako eta nazioetako ordezkariak Lisboako Itunetik datozen eskumenak nola baliatu ondoen. Batez ere, aurretiaz ohartarazteko mekanismoaren esparruan subsidiarotasunaren azterketa egiteko eskualdeetako parlamentuek duten ahalmen instituzionala nola sendotu aztertuko da berariaz.

Azkenik, Eskualdeen Komiteak jakin badaki garrantzitsua dela aurretiazko etapekin zerikusia duten aldeak parte hartzera behartzea politikak garapen fasean daudenean eta, horregatik, eztabaida bat abiarazi nahi du Europako Eskualdeetako Legebiltzarren Batzarrak ordezkatzeko dituen eskualdeetako parlamentuekin.

Eskualdeetako gobernuak, eta bereziki legegintza eskumenak dituzten eskualdeak ordezkatzeko dituztenei, eskatuko zaie subsidiarotasunari buruz EK-k etorkizunean burutzen dituen jardueren solaskide izan daitezela Subsidiarotasunari Jarraitzeko Sarean parte hartuz. Amaitzeko, SJSren ekintza-planaren bigarren edizioako lan-taldeetako liderrek hitz egingo dute.